

BERRIKETA GUTXI

EZ HANKA EZ BURU

 **ADUR LARREA**
www.adurlarrea.com

Ventolin



IMANOL EPELDE
27zapata.eus

Ventolin kolpe batek lagundu egiten dio arnasa uneren batean hartu ezinean dabilenari. Baina, botika horrek ez dio askorik lagunduko biriken hiru laurdenak funtzionatzen ez dionari. Horrela bizi gara euskaldunok. Gurea ez da asma, gripea. Minbizia da. Onkologiko bat behar dugu. Eta ordenagailu kuantiko bat. Kapital bakoitzean.

Proiektzioak ez dira baikorragoak: 2036an ia arnagunerik ez dugu izango eta erdara nagusi den eremuetan biziko gara. Laster, Azpeitian ere ezingo dugu txistorrik lasai jan. Horregatik ere antolatuko zuten arnaguneei buruzko nazioarteko konferentzia bat aurreko astean. Inork ez du zalantzan jartzen hil ala bizikoa denik arnaguneak izatea hizkuntza bat bizitzeko. Altxa dezala eskua ados ez dagoenak.

Orain, demagun 20 ikasle dauzkadala gelan. 4 dira etxetik euskara dakartenak. 4 horiek lan-talde berean jartzen badituzte, gelako euskararen erabilera %25ekoa izango da. Lau horiek gainerakoen artean nahasten badituzte, %0. Erdara nagusi den eremuetan dinamikak erdarara bultzatzen du. Badakigu euskaldunok zerbait horretaz. Orduan, zergatik ez ditugu bilatzen arnaguneak ikastetxean, auzoan, herrian?

Itota bizi gara. Eta hala ere, nahastu egiten ditugu ikasleak eta gelak. Guri umetan herri menderatua ginela kontatzen ziguten, espainolez egiten zuena espainola zela. Eta espainola izatea zerbait terriblea zen. Kontuz kamiseta horiak eta galtza motz gorriak konbinatzearekin. Orain, gizarte plurala gara. Ez dago hizkuntza zapalkuntzarik, eleaniztasuna baizik.

Burges klasisten apeta gutiziatsua ote da euskaraz egiteko hautu irmoa egiten dutenen seme-alabak elkarrekin egotea? Zergatik bihurtu da tabu komunitate batek trinkotu egin behar duela esatea bera ere?

Autopsiarako frogak egiten dizkigutenean, modu naturalean hil ginela esango digute. Hizkuntza oso zaharra zen euskara, badakizue. ●

